



ESTADÍSTIKA
ORGANOA

ORGANO
ESTADÍSTICO

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistika Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA 2017ko 4. hiruhilekoa

Emitza nagusiak

*Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren
Estatistika Organo Berezia*



1. OBRA HANDIKO LIZENTZIAK

Emandako obra handiko lizentzien kopuruak gora egin du hiru lurralde historikoetan aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta Araban eta Bizkaian 2016ko hiruhileko berberarekin alderatuta ere bai

Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko inkestak agerian jartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) udalek guztira obra handiko 860 lizentzia eman zituzten 2017ko laugarren hiruhilekoan. Emaitza horiek nabarmen hobeak izan ziren 2017ko hirugarren hiruhilekoak baino: 152 lizentzia gehiago eman ziren, eta horrek esan nahi du % 21,5eko gorakada izan zela. Aurreko urteko hiruhileko berarekin konparatuta, jarduerak gora egin du intentsitate apalagoz bada ere: 107 lizentzia gehiago onartu dira; beraz, % 14,2ko hazkundera izan da.

Bizkaian hiruhilekoko obra handiko lizentzien % 53,8 eman da, guztira 463. Atzetik du Araba 210 lizentziarekin, guztien % 24,4. Gainerako 187 lizentziak, guztien % 21,7, Gipuzkoakoak dira.

Euskal Autonomia Erkidego osoan, Gipuzkoako Lurralde Historikoan erregistratu da hazkunde handiena obra handietarako emandako lizentzien kopuruan, 2017ko hirugarren eta laugarren hiruhilekoen artean. Lurralde horretan, aintzat hartutako lizentziak % 33,6 igo dira aipatutako epean (47 lizentzia gehiago). Bizkaian, emandako lizentzien kopuruak % 17,2 egin du gora 2017ko hirugarren eta laugarren hiruhilekoen artean; guztira, 68 lizentzia gehiago izan dira. Araba izan da erdi-mailako egoeran; izan ere, 37 lizentzia gehiago erregistratu dira aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Hau da, % 21,4ko hazkundera.

Hiruhilekoko aldakuntzen ildo beretik, emandako lizentzien kopuruaren urte arteko emaitzak positiboak izan dira Araban eta Bizkaian, baina intentsitate desberdinez. Bizkaiko Lurralde Historikoan 96 lizentziako goraka absolutua izan da 2016ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta; beraz, % 26,2ko gorakada erlatiboa. Araban, urte arteko gorakada 15 lizentziakoa izan da, eta epealdiko gorakada erlatiboa % 7,7koa izan da. Gipuzkoan, bestalde, emandako lizentzien kopuruaren beherakada arina ageri da; izan ere, 2016ko laugarren hiruhilekoan obra handiko 191 lizentzia eman ziren, 2017ko laugarren hiruhilekoan baino 4 gehiago (187 lizentzia, % 2,1eko beherakadarekin).

Zaharberritze-obrekin lotutako lizentziak dira oraindik ere nagusi, nahiz eta oin berriak ere nabarmen ari diren ugartzen

2017ko laugarren hiruhilekoan mantendu egin da aurreko hiruhilekoan **emandako lizentzien moten** araberako banaketan ikusitako joera, hau da, argi eta argi nagusi izan dira birgaitzeko obra handiko lizentziak, eta aldakuntza txikiak izan dira azken hiruhilekoko partaidetzan.

Zehazki, hiruhileko horretan birgaitze-lanetarako lizentziak obra handiko lizentzien % 80,9 izan dira (2017ko hirugarren hiruhilekoko % 84,7ren gaineratik), oin berriko



eraikinetarako lizentziak % 17,0 (2017ko laugarren hiruhilekoan, % 13,3), eta eraispenetarako lizentziak % 2,1. Kopuru absolutuak honako hauek dira: birgaitzeko 696 lizentzia (2017ko bigarren hiruhilekoan baino 96 gehiago, % 16,0ko gorakadarekin), 146 oin berriko obretarako (52 lizentzia gehiago, % 55,3ko gorakadarekin) eta eraisteko 18 lizentzia, aurreko hiruhilekoan baino 4 gehiago.

2017ko laugarren hiruhilekoan, oin berriko lizentziek eta birgaitzekoek emandako lizentzien kopuru osoan egiten duten zatia modu diferentean banatzen da, zein lurralde historiko aztertzen dugun. Gipuzkoan, oin berriko lizentziek pisu erlatibo zertxobait handiagoa dute (emandako obra handiko lizentzien % 21,9; Araban, aldiz, halakoak % 20,5 dira, eta Bizkaian, azkenik, % 13,4). Horrek kontrako efektua dauka birgaitzeko obra handiko lizentziei dagokienez; eraispenen eragin desberdinaren ñabardurarekin: Gipuzkoan, birgaitzeko lizentziak emandako lizentzia guztien % 74,3 dira; Araban, aldiz, proportzio hori % 77,1 da, eta Bizkaian % 85,3.

1. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2017ko 4. hiruhilekoa

(Hiruhilekoko balio absolutuak eta portzentaje bertikalak. Aldakuntza absolutua eta portzentajezkoa, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta.)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK		2017ko 4. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza		Aurreko urteko hiruhileko berberarekiko aldakuntza	
		Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	860	100,0	152	21,5	107	14,2
	Oin berrikoa	146	17,0	52	55,3	1	0,7
	Birgaitzea	696	80,9	96	16,0	108	18,4
	Eraispena	18	2,1	4	28,6	-2	-10,0
Araba	Guztira	210	100,0	37	21,4	15	7,7
	Oin berrikoa	43	20,5	18	72,0	4	10,3
	Birgaitzea	162	77,1	15	10,2	9	5,9
	Eraispena	5	2,4	4	400,0	2	66,7
Bizkaia	Guztira	463	100,0	68	17,2	96	26,2
	Oin berrikoa	62	13,4	25	67,6	-7	-10,1
	Birgaitzea	395	85,3	44	12,5	105	36,2
	Eraispena	6	1,3	-1	-14,3	-2	-25,0
Gipuzkoa	Guztira	187	100,0	47	33,6	-4	-2,1
	Oin berrikoa	41	21,9	9	28,1	4	10,8
	Birgaitzea	139	74,3	37	36,3	-6	-4,1
	Eraispena	7	3,7	1	16,7	-2	-22,2

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta etxebizitza buruzko estatistika. 2017ko 4. hiruhilekoa

2017ko hirugarren hiruhilekoaren eta laugarrenaren arteko epealdian ikusienez, Araban nabarmen egin du behera oin berriko lizentzien kopuruak (+% 72,0), eta neurri



txikiagoan birgaitzeko obren kasuan (+% 10,2). Bizkaian ere gorakada erlatiboa nabarmena da, bai birgaitzeko lizentziei dagokienez (+% 12,5), bai oin berriko lizentziei dagokienez (+% 67,6). Gipuzkoan, era berean, portaera positiboa ikusi da obra berriari dagokionez (+% 28,1), eta birgaitzeko lizentziei dagokionez intentsitate handiagoa erregistratu da (+% 36,3).

Urte arteko bilakaeran, Bizkaiak izan du bilakaerarik txarrena oin berriko lizentzietan, eta atzerapena izan du emandako mota horretako lizentziei dagokienez (-% 10,1). Gipuzkoaren kasuan, aldiz, % 10,8ko gorakada erregistratu da, eta tankerako intentsitatea izan du Araban ere (+% 10,3). EAE osoa aintzat hartuta, apenas hautematen den urte arteko aldakuntzarik obra berriko lizentzietan; hala, 2016ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, +% 0,7ko aldakuntza erregistratu da.

Birgaitze-lizentziek gora egin dute EAEn, 2016ko laugarren hiruhilekoaren eta 2017koaren artean (+% 18,4). Igoera hori Bizkaian gertatutako gorakadarekin dago lotuta (+% 36,2), EAEko batezbestekoa baino handiagoa izan baita, bai eta Araban gertatutakoarekin ere (+% 5,9), neurri txikiagoan bada ere. Gipuzkoan, aldiz, murriztu egin dira tankera horretako lizentziak (-% 4,1).

Metatutako urte arteko datuek erakusten dutenez, atzeraldi arina ageri da EAEn 2017ko laugarren hiruhilekoan emandako lizentzien kopuruan

Urteko datu metatu horiek 2017ko lehen hiruhilekoaren eta 2017ko laugarren hiruhilekoaren artean emandako lizentzia gutziak kontabilizatzen dituzte; aurreko urteko hiruhileko berberen (2016ko lehen hiruhilekotik 2016ko laugarren hiruhilekora) urteko metatuarekin konparaketa eginez gero, ikusten denez, 58 lizentzia gutxiago eman dira, 2016ko epealdi konparagarrian baino -% 1,8 gutxiago. Jaitsiera zertxobait handiagoa da oin berriko lizentzien kasuan, EAEn % 11,4ko beherakada izan baita (59 lizentzia gutxiago); birgaitzekoen kasuan, aldiz, -% 0,2 izan da (4 lizentzia gutxiago). Eraisteko soilik diren obretarako emandako lizentzien kopuruak, aldiz, % 8,3 egin du gora, 5 lizentzia gehiago eman baitira.

Birgaitzeari dagokionez, 2017ko laugarren hiruhilekoko urteko datu metatuen dinamika ona Bizkaian soilik izan da; etxebizitza berriari dagokionez, hiru lurralde historikoetan egin du egoerak atzera

Urte arteko datu metatuak lurralde historikoaren arabera aztertuta agerian geratzen da EAEn dinamika diferenteak daudela.

Bizkaiak gorakada arina izan du azken urtean metatutako lizentzia kopuruan, aurreko urteko epealdi berberarekin alderatuta (+% 3,0 egin du gora, 49 lizentzia gehiago eman baitziren). Bizkaiak bakarrik izan du gorakada apala birgaitze-lizentziei dagokienez (+% 5,9). Edonola ere, planta berriko obra-lizentziekin alderatuta, murrizketa handiena ageri duen lurralde historikoa da: -% 16,9, eta 41 lizentzia gutxiago.



2. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2017ko 4. hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak eta portzentajea. Urte arteko aldakuntza absolutua eta portzentajea.)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK		Metatua 2017ko 1. hiruhilekotik 2017ko 4. hiruhilekora.		Metatua 2016ko 1. hiruhilekotik 2016ko 4. hiruhilekora.		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko hiruhileko berberarekin alderatuta	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	3.087	100,0	3.145	100,0	-58	-1,8
	Oin berrikoa	459	14,9	518	16,5	-59	-11,4
	Birgaitzea	2.563	83,0	2.567	81,6	-4	-0,2
	Eraispena	65	2,1	60	1,9	5	8,3
Araba	Guztira	786	100,0	810	100,0	-24	-3,0
	Oin berrikoa	128	16,3	137	16,9	-9	-6,6
	Birgaitzea	644	81,9	659	81,4	-15	-2,3
	Eraispena	14	1,8	14	1,7	0	0,0
Bizkaia	Guztira	1.695	100,0	1.646	100,0	49	3,0
	Oin berrikoa	202	11,9	243	14,8	-41	-16,9
	Birgaitzea	1.462	86,3	1.380	83,8	82	5,9
	Eraispena	31	1,8	23	1,4	8	34,8
Gipuzkoa	Guztira	606	100,0	689	100,0	-83	-12,0
	Oin berrikoa	129	21,3	138	20,0	-9	-6,5
	Birgaitzea	457	75,4	528	76,6	-71	-13,4
	Eraispena	20	3,3	23	3,3	-3	-13,0


Iurria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistika. 2017ko 4. hiruhilekoa

Arabara, 24 lizentziako beherakada arinak urte arteko atzerakada metatua ekarri du (% 3,0ko beherakada, alegia) obra-lizentzien guztizko kopuruan, baina lurralde horretan diferentzia handiak ikusten dira emandako lizentzien kopuruaren bilakaeran, motaren arabera. Birgaitzeko lizentzien kopuruak behera egin du urte arteko % 2,3; emandako oin berriko lizentzien kopuruak, aldiz, intentsitate handiagoz egin du behera (-% 6,6), emandako obra berriko lizentziak 9 gutxiago izan baitira aurreko erreferentzia-aldian baino (128 lizentzia, 137ren aldean). Araban aldi berean detektatu da eraisteko soilik diren lizentzien kopurua egonkortu egin dela (+% 0,0), bi epealdietan mota horretako 14 lizentzia eman baitira.

Gipuzkoan erregistratu da beherakadarik handiena emandako lizentzien kopuruan (-% 12,0). Birgaitzeko obretarako lizentzien kopuruak behera egin du, urte arteko % 6,5, eta intentsitate txikiagoarekin oin berrietan, % 6,5eko beherakada erregistratu baita. Multzoan hartuta, emakida kopuruak behera egin du, urte arteko zifretan 83 lizentzia gutxiago eman dira, birgaitzeko 71 lizentzia gutxiago eta oin berrietarako 9 gutxiago.



1. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera. EAE. 1998-2017



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistika. 2017ko 4. hiruhilekoa

URTEKO BILAKAERA

Epe luzera begiratuta, nahiz eta 2016 eta 2017 arten atzerakada arin bat erregistratu den, 2009-2015 urte bitartean izandako lizentziak baino gehiago aurreikusten dira. Birgaitzeko kopuruei erreparatuta, berriz, 2016an izandako maximoa berdintzen da ia

2017an emandako lizentzien bolumena txikiagoa izan da 2016koa baino (-% 1,8), eta, hala, hautsi egiten da 2013 eta 2016 artean erregistratutako esleipen-bolumenaren hobekuntza-aldia; izan ere, 2013an 2.145 lizentzia ematetik 2016an 3.145 lizentzia ematera igaro zen. Hala eta guztiz ere, 2017ko lizentzien kopurua (3.087 lizentzia) oraindik ere urrun dago 2004tik 2007ra bitartean urtero emandako lizentzien kopurutik (3.500 inguru), bai eta 1998tik 2001era emandakoen kopurutik ere (3.350 eta 3.450 inguru).

2005. urtean hasi zen ageriko egiten lizentzia-kopuruaren beherakada, eta, urte hura erreferentziatzat hartuta, 2017an guztira 619 lizentzia gutxiago eman ziren, urte hartan baino. Ehunekotan, 2005etik 2017ra bitartean, emandako lizentzien kopuruaren urteko datuek oso deigarriak izaten jarraitzen dute (-% 16,7).

Higiezinaren krisia askoz ere gehiago hautematen da, gaur egun ere, oin berrietan, gainerakoetan baino. Nahiz eta eraikin berriak eraikitzeko lizentziek hobera egin duten 2013 eta 2016 artean, 2017an % 11,4 murriztu da 2016ko datuekin alderatuta; izan ere,



518 lizentzia izatetik 2017an 459 lizentzia izatera igaro da. Kopuru hori oso urrun dago oro har 1998-2006 aldian eman ziren 1.500 lizentzietatik. Nolanahi ere den, 2017ko kopuruak gainditu egiten du 2012-2015 urteetan emandakoen kopurua.

3. taula. Obra handiko lizentziak urtez urte, obra-motaren arabera. 1998-2017

(Balio absolutuak eta urte arteko aldakuntza, %)

Euskal Autonomia Erkidegoa	Guztira		Oin berrikoa		Birgaitzea		Eraispena	
	Kopurua	Urte arteko aldakuntza	Kopurua	Urte arteko aldakuntza	Kopurua	Urte arteko aldakuntza	Kopurua	Urte arteko aldakuntza
Urtea								
1998	3.374		1.795		1.522		57	
1999	3.361	-0,4	1.798	0,2	1.499	-1,5	64	12,3
2000	3.424	1,9	1.756	-2,3	1.594	6,3	74	15,6
2001	3.414	-0,3	1.680	-4,3	1.643	3,1	91	23,0
2002	3.086	-9,6	1.447	-13,9	1.574	-4,2	65	-28,6
2003	3.101	0,5	1.489	2,9	1.544	-1,9	68	4,6
2004	3.700	19,3	1.590	6,8	2.002	29,7	108	58,8
2005	3.706	0,2	1.570	-1,3	2.025	1,1	111	2,8
2006	3.618	-2,4	1.654	5,4	1.862	-8,0	102	-8,1
2007	3.474	-4,0	1.399	-15,4	1.979	6,3	96	-5,9
2008	3.133	-9,8	1.024	-26,8	2.019	2,0	90	-6,3
2009	2.034	-35,1	578	-43,6	1.407	-30,3	49	-45,6
2010	2.602	27,9	675	16,8	1.863	32,4	64	30,6
2011	2.883	10,8	660	-2,2	2.174	16,7	49	-23,4
2012	2.380	-17,4	447	-32,3	1.909	-12,2	24	-51,0
2013	2.145	-9,9	351	-21,5	1.746	-8,5	48	100,0
2014	2.585	20,5	390	11,1	2.133	22,2	62	29,2
2015	2.744	6,2	444	13,8	2.240	5,0	60	-3,2
2016	3.145	14,6	518	16,7	2.567	14,6	60	0,0
2017	3.087	-1,8	459	-11,4	2.563	-0,2	65	8,3
Aldea 2006-2013	-1.473	-40,7	-1.303	-78,8	-116	-6,2	-54	-52,9
Aldea 1999-2017	-274	-8,2	-1.339	-74,5	1.064	71,0	1	1,6
Aldea 2005-2017	-619	-16,7	-1.111	-70,8	538	26,6	-46	-41,4
Aldea 2006-2017	-531	-14,7	-1.195	-72,2	701	37,6	-37	-36,3

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistika. 2017ko 4. hiruhilekoa



Oin berriko lizentziak gutxitzearen hasiera aztertuta (2006 eta 2007 artean gertatu zen), 2006an 1.654 lizentzia ematetik 2017an 459 lizentzia ematera igaro zen; horrek esan nahi du % 72,2ko beherakada izan zela, 2006an baino 1.195 lizentzia gutxiago eman baitziren.

Aldiz, birgaitze-lizentziek portaera desberdina ageri dute oinplano berriko lizentzien aldean. Hain justu, ikusten da oro har oin berriko lizentzien bolumena konpentsatzen dutela birgaitzeko lizentziek.




2. grafikoa. Obra handiko lizentziak urtez urte, obra-motaren arabera. 1998-2017

Zifra absolutuak





Portzentajezko banaketa



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistika. 2017ko 4. hiruhilekoa

2009ko salbuespenarekin (1.407 birgaitze-lizentzia eman baitziren), 2008 eta 2013 artean lizentzien bolumenak 1.500-2.000 arteko atalaseari eutsi zion, 2004-2007 urte bitartean gertatu zen moduan. 2013tik aurrera, jarduerak gorako bideari heldu dio 2016raino; urte horretan lortu zen maximoa 1998tik hasita (2.567 lizentzia). 2017an, aldiz, emandako lizentzien kopurua egonkortu egin zen, eta ia berdindu egin zuen 2016an erregistratutako balio maximoa: 2.567 lizentzia ematetik 2.563 ematera (-% 0,2).

Eraispenei dagokienez, emandako lizentzien kopurua oso txikia izan zen oro har hartuta, eta 2005 eta 2017 artean -% 41,4ko beherakada izan zuen. Tankera horretako 65 lizentzia eman ziren 2017an guztira; 2016an emandako 60 lizentzia baino apur bat gehiago.

Nolanahi ere, eraikuntzako sektorearen krisia zela-eta, erabat aldatu zen obra handiko lizentzien tipologia, oin berrietarako lizentziek behera egin baitzuten, eta birgaitzeko obretarako lizentzien ehunekoa gero eta handiagoa izan zen. 2017an, azken horiek guztizkoaren % 83,0 izan dira; hau da, 2016koa baino ehuneko 2,4 gehiago (% 81,6). Hain justu, 2017an lortu zen eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko inkestak estalitako aldiko birgaitze-lizentzien ehunekorik handiena. Datu horiek bestelakoak dira 2003 aurretik izandako joerarekin alderatuta, tankera horretako lizentzien pisua ez baitzen guztizkoaren % 50era iristen.

Oin berriko lizentzietan dagokienez, berriz, kontrakoa gertatzen da: 2017ko gutxieneko ehunekoa lortzen da (% 14,9), 2014an erregistratutako % 15,1 baino apur bat gutxiago.



Eraisteko bakarrik emandako lizentzietan, urteetan zehar proportzio horri eutsi zitaion aldaketa handirik gabe; urtero emandako lizentzien % 1-3 inguru izan ziren.

4. taula. Oin berriko obretarako eta birgaitzeko obra handiko lizentziak, urteka eta lurralde historikoka, obra motaren arabera. 1998-2016

(Balio absolutuak eta urte arteko aldakuntza, %)


Urtea	Araba				Bizkaia				Gipuzkoa			
	Oin berrikoa		Birgaitzea		Oin berrikoa		Birgaitzea		Oin berrikoa		Birgaitzea	
	Kopurua	Urte arteko aldakuntza	Kopurua	Urte arteko aldakuntza	Kopurua	Urte arteko aldakuntza	Kopurua	Urte arteko aldakuntza	Kopurua	Urte arteko aldakuntza	Kopurua	Urte arteko aldakuntza
1998	590		411		705		865		500		246	
1999	616	4,4	432	5,1	705	0,0	904	4,5	477	-4,6	163	-33,7
2000	648	5,2	404	-6,5	608	-13,8	997	10,3	500	4,8	193	18,4
2001	548	-15,4	439	8,7	663	9,0	950	-4,7	469	-6,2	254	31,6
2002	513	-6,4	327	-25,5	549	-17,2	950	0,0	385	-17,9	297	16,9
2003	513	0,0	267	-18,3	545	-0,7	944	-0,6	431	11,9	333	12,1
2004	573	11,7	421	57,7	623	14,3	1.186	25,6	394	-8,6	395	18,6
2005	525	-8,4	493	17,1	644	3,4	1.155	-2,6	401	1,8	377	-4,6
2006	604	15,0	550	11,6	642	-0,3	923	-20,1	408	1,7	389	3,2
2007	526	-12,9	588	6,9	535	-16,7	977	5,9	338	-17,2	414	6,4
2008	368	-30,0	588	0,0	386	-27,9	1.028	5,2	270	-20,1	403	-2,7
2009	223	-39,4	525	-10,7	180	-53,4	650	-36,8	175	-35,2	232	-42,4
2010	226	1,3	715	36,2	283	57,2	883	35,8	166	-5,1	265	14,2
2011	214	-5,3	829	15,9	256	-9,5	1.063	20,4	190	14,5	282	6,4
2012	134	-37,4	664	-19,9	183	-28,5	942	-11,4	130	-31,6	303	7,4
2013	110	-17,9	565	-14,9	150	-18,0	891	-5,4	91	-30,0	290	-4,3
2014	113	2,7	558	-1,2	179	19,3	1.203	35,0	98	7,7	372	28,3
2015	129	14,2	572	2,5	178	-0,6	1.244	3,4	137	39,8	424	14,0
2016	137	6,2	659	15,2	243	36,5	1.380	10,9	138	0,7	528	24,5
2017	128	-6,6	644	-2,3	202	-16,9	1.462	5,9	129	-6,5	457	-13,4
Aldea 2005-2017	-397	-75,6	151	30,6	-442	-68,6	307	26,6	-272	-67,8	80	21,2
Aldea 2006-2017	-476	-78,8	94	17,1	-440	-68,5	539	58,4	-279	-68,4	68	17,5

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistika. 2017ko 4. hiruhilekoa

Lurralde-dinamikak ere hainbat elementu espezifiko esanguratsu ematen dizkigu. Oin berriko lizentziei dagokienez, guztietan ere beherakada ageri da: % 16,9 Bizkaian, % 6,6 Araban eta % 6,5 Gipuzkoan. Birgaitzeari erreparatzen badiogu, bestalde, Bizkaiko goranzko joera bakarrik baieztatzen da, etengabe igo baita 2013tik (891 lizentzia) 2017ra arte (1.462 lizentzia, %5,9ko hazkundearekin 2016tik). Araban eta Gipuzkoan, ordea, beherakada izan da azken urtean: % 13,4 Gipuzkoan eta % 2,3koa Araban.



3. grafikoa. Obra handiko lizentziak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 1998-2017



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistika. 2017ko 4. hiruhilekoa

2. EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIAK ZER ERABILERATARAKO ZIREN

2017ko laugarren hiruhilekoan hobera egin du bizitegirako diren obra handiko lizentzien kopuruak, baita bizitegitarako ez direnenak ere, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berberarekin alderatuta

2017ko laugarren hiruhilekoan, obra handiko 842 lizentzia eman ziren, oin berriak egiteko edo lehendik zeuden eraikinak birgaitzeko. Lizentzia horietako gehienak (635, hau da, guztizkoaren % 75,4) **bizitegi-erabilerarako** proiektuekin lotu dira, eta gainerako 207 lizentziak, (% 24,6), berriz, bizitegi-erabilerarako ez diren proiektuekin¹.

¹ Txostenaren atal honetan egiten den azterketatik bazter geratzen dira eraisteko obra-lizentziak, halako lizentziak ez baitira ezertarako erabiltzen obra egikaritu ondoren (geroago eraikinik egiten bada, horretarako beste lizentzia-eskari bat tramitatu behar da). Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat da erabilera mistoko eraikinak (bizitegitarakoak eta bizitegitarakoak ez direnak) bizitegi-erabilerako kategorian sartzen direla.



2017ko laugarren hiruhilekoan emandako obra-lizentzien artean **bizitegitarako erabilerakoak ez direnen** helburu sektorialari dagokionez, nabarmentzekoa da zerbitzu erabilerakoak izan zirela nagusi (guztien % 61,4). Industriaren eta energiaren sektorerara beste % 30,0 bideratu zen, eta gainerako % 8,7, berriz, lehen sektoreko jardueretara.

Lizentzien kopuruak 2017ko hirugarren hiruhilekoaren eta laugarrenaren artean izan duen **hiruhilekoko bilakaera** ikusita, hobera egin dute bizitegitarako ez diren proiektuei lotutako emakidek (+% 12,5); bizitegitarako lizentziei dagokienez, aldiz, kopuruak gora egin du intentsitate handiagoz (+% 24,5).

Bizitegitarako ez diren lizentzien kopuruak gora egin du 2017ko hirugarren hiruhilekoaren eta laugarrenaren artean (+% 12,5). Gorakada horrek batik bat **zerbitzuen** sektorearekin (+% 14,4) eta **industriarekin eta energiarekin** (+% 10,7) izan du lotura; **lehen sektoreak**, aldiz, gorakada apalagoa izan du (+% 5,9).

2016ko laugarren hiruhilekoaren eta 2017ko laugarren hiruhilekoaren arteko **urteko** konparaketak datu positiboak ematen ditu bizitegitarako erabilerarako lizentziei (+% 15,9) zein bizitegitarako ez den erabilerarako lizentziei dagokienez (+% 11,9).

5. taula. Obra handiko lizentziak, obra zer erabileratarako zen kontuan hartuta. 2017ko 4. hiruhilekoa

(Balio absolutuak eta portzentajea. Urte arteko aldakuntza absolutua eta portzentajezkoa.)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	2017ko 4. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza		Aurreko urteko hiruhileko berberarekiko aldakuntza	
	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %	Kopurua	Aldak. %
Guztira	842	100,0	148	21,3	109	14,9
Bizitegitarako	635	75,4	125	24,5	87	15,9
Bizitegitarako ez direnak	207	24,6	23	12,5	22	11,9
- Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	18	8,7	1	5,9	1	5,9
- Industria eta energia	62	30,0	6	10,7	24	63,2
- Zerbitzuak	127	61,4	16	14,4	-3	-2,3

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistika. 2017ko 4. hiruhilekoa

2016ko laugarren eta 2017ko laugarren hiruhilekoen artean bizitegitarako ez diren lizentziak ematearen barne-dinamikari dagokionez, gorakadak erregistratu dira jardueraren sektore guztietan, zerbitzuen sektorean izan ezik. Igoerarik handiena industria eta energiaren sektoreak izan du (+% 63,2), eta intentsitate txikiagoarekin lehen sektoreak (+% 5,9); aldiz, zerbitzuen sektoreak (-% 2,3) lizentzia gutxiago eman ditu.

Urte arteko kopuru metatuetan, apur bat hobera egin du bizitegi-erabilerarako emandako lizentzien kopuruak; bizitegitarako ez diren lizentzienak, aldiz, behera egin du



Urte arteko adierazle metatuetan, ikuspegi positiboa ageri dira bizitegi-erabilerari dagokionez. Hala, 2016ko laugarren hiruhilekora arte metatutako urte arteko kopuruak (2016ko lehen hiruhilekotik 2017ko laugarren hiruhilekora) 2017ko hiruhileko berbereko kopuruekin (2017ko lehen hiruhilekotik 2017ko laugarren hiruhilekora) konparatzean, datuek agerian jartzen duten apur bat hobera egin dela bizitegi-erabilerako emandako lizentzien kopuruan (% 0,8ko gorakada), baina beherakada ikusi da bizitegirako ez diren lizentziei dagokienez (-% 9,7). Aurreko hiruhilekoko kopuruekin konparatzen badira, egiaztatzen da bi motetan joera egonkortu egin dela. Bizitegitarako ez diren lizentzien kasuan, joerak hobera egin duela ikusi da; izan ere, hirugarren hiruhilekoan -% 11,3 izatetik hiruhileko honetan -% 9,7 izatera igaro da. Bizitegitarako lizentzien kasuan, joera egonkortu egin dela ikusi da; izan ere, 2017ko hirugarren hiruhilekoan +% 0,9 izatetik hiruhileko honetan +% 0,8 izatera igaro da.

6. taula. Obra handiko lizentziak, obra zer erabileratarako zen kontuan hartuta. 2017ko 4. hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak eta portzentajea. Urte arteko aldakuntza absolutua eta portzentajeakoa.)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	Metatua 2017ko 1. hiruhilekotik 2017ko 4. hiruhilekora.		Metatua 2016ko 1. hiruhilekotik 2016ko 4. hiruhilekora.		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko hiruhileko berberarekin alderatuta	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %
Guztira	3.022	100,0	3.085	100,0	-63	-2,0
Bizitegitarako	2.280	75,4	2.263	73,4	17	0,8
Bizitegitarako ez direnak	742	24,6	822	26,6	-80	-9,7
- Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	69	9,3	93	11,3	-24	-25,8
- Industria eta energia	221	29,8	190	23,1	31	16,3
- Zerbitzuak	452	60,9	539	65,6	-87	-16,1

Iurria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistika. 2017ko 4. hiruhilekoa

Bizitegitarako ez diren obra-lizentziei dagokienez, 2017ko laugarren hiruhilekoko urteko datu metatuek erakusten dute datuek oro har txarrera egin dutela lehen sektorean emandako lizentzien bilakaeran (-% 25,8), baita zerbitzuetan ere (-% 16,1). Industriaren eta energiaren sektoreak, ordea, +% 16,3ko hazkundera izan du.

URTEKO BILAKAERA

2017an bizitegitarako obra nagusiko lizentzia gehiago eman dira (+% 0,8), eta industriarekin eta energiarekin lotutako jarduerak (+% 16,3) berreskuratu ari dira 2016rekin alderatuta; edonola ere, 2005ekoak baino nabarmen txikiagoak dira



Nahiz eta 2016 eta 2017 artean hobekuntza erregistratu den bizitegi-erabilerako obra-lizentziak alderatuta (+% 0,8) eta industriarekin eta energiarekin lotuei dagokienez (+% 16,3), obra nagusiko lizentzien epe ertain eta luzeko dinamikak erakusten du, egungo jarduera eta krisiaren aurreko urteetako alderatuta, bilakaera negatiboak esanguratsua izaten jarraitzen duela.

7. taula. Obra handiko lizentziak, urteen eta hiruhilekoen arabera, obra zer erabileratarako zen kontuan hartuta (*), 1998-2017

(Balio absolutuak eta urte arteko aldakuntza, %)

Urtea	Bizitegitarako		Bizitegitarako ez direnak							
			Bestelako erabilerak Guzтира		Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza		Industria eta energia		Zerbitzuak	
	Kopurua	Urte arteko aldakuntza	Kopurua	Urte arteko aldakuntza	Kopurua	Urte arteko aldakuntza	Kopurua	Urte arteko aldakuntza	Kopurua	Urte arteko aldakuntza
1998	3.317		1.100		192		314		594	
1999	3.297	-0,6	1.101	0,1	153	-20,3	258	-17,8	690	16,2
2000	3.350	1,6	1.100	-0,1	129	-15,7	258	0,0	713	3,3
2001	3.323	-0,8	1.084	-1,5	164	27,1	278	7,8	642	-10,0
2002	2.118	-36,3	903	-16,7	116	-29,3	271	-2,5	516	-19,6
2003	2.343	10,6	690	-23,6	118	1,7	180	-33,6	392	-24,0
2004	2.801	19,5	791	14,6	113	-4,2	207	15,0	471	20,2
2005	2.773	-1,0	822	3,9	105	-7,1	244	17,9	473	0,4
2006	2.693	-2,9	823	0,1	103	-1,9	213	-12,7	507	7,2
2007	2.592	-3,8	786	-4,5	118	14,6	208	-2,3	460	-9,3
2008	2.268	-12,5	775	-1,4	125	5,9	209	0,5	441	-4,1
2009	1.472	-35,1	513	-33,8	80	-36,0	131	-37,3	302	-31,5
2010	1.774	20,5	764	48,9	110	37,5	143	9,2	511	69,2
2011	2.081	17,3	753	-1,4	106	-3,6	130	-9,1	517	1,2
2012	1.704	-18,1	652	-13,4	103	-2,8	155	19,2	394	-23,8
2013	1.556	-8,7	541	-17,0	107	3,9	123	-20,6	311	-21,1
2014	1.793	15,2	730	34,9	125	16,8	134	8,9	471	51,4
2015	1.908	6,4	776	6,3	117	-6,4	183	36,6	476	1,1
2016	2.263	18,6	822	5,9	93	-20,5	190	3,8	539	13,2
2017	2.280	0,8	742	-9,7	69	-25,8	221	16,3	452	-16,1
Aldea 2000-2017	-1.070	-31,9	-358	-32,5	-60	-46,5	-37	-14,3	-261	-36,6
Aldea 2005-2017	-493	-17,8	-80	-9,7	-36	-34,3	-23	-9,4	-21	-4,4
Aldea 2007-2017	-312	-12,0	-44	-5,6	-49	-41,5	13	6,3	-8	-1,7

Iurria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistika. 2017ko 4. hiruhilekoa

(*) Ez dira kontuan hartu eraispenerako bakarrik ziren lizentziak

Zehazki, 2017an, bizitegi-erabilerarako obretarako emandako lizentzien kopurua % 17,8 txikiagoa izan zen, 2005ean emandako lizentziarena baino. Bizitegitarako ez diren proiektuen jarduerak aldakuntza txikiagoak ageri ditu denbora-tarte horretan (-% 9,7); hala ere, ikusten da barne-joera desberdinak ageri direla, eta beherakada esanguratsuak




izan dituzte industriara eta energiara bideratuek, eta, batez ere, lehen sektorekoek. Hala, 2017an industriarako eta energiarako emandako lizentziak % 9,4 gutxiago izan ziren 2005ean emandakoen aldean (221 eta 244, hurrenez hurren); murrizketa hori % 34,3koa da lehen sektorean (69 lizentzia, eta 105 eman ziren 2005ean).

Lehen sektorean, 2017an jasotako zifrek nabarmen egiten dute okerrera, 2016an eskainitakoan (-% 25,8) eta 2005ekoan aldean (-% 34,3). 2017an emandako 69 lizentziak ere 2009an emandako 80 lizentziak baino gutxiago dira (hura izan zen 1998-2016 aldiko serieko balio minimoa). Hain justu, 2017tik kanpo (69 lizentzia), 100 lizentziatik 2009an bakarrik jaitsi zen (80 lizentzia) eta 2016an (93 lizentzia). Zerbitzuen sektoreari erreparatuta, 2016 eta 2017 artean izandako %16,1eko murrizketak zera eragiten du, % 4,4ko murrizketa erregistratzen dela 2005 eta 2017 artean.

Epe luzeko ikuspegitik, eta kontuan izanda egiaz 2000. urtean eman zirela lizentzia gehien, egiazta daiteke lizentzien beherakadaren intentsitatean desberdintasun nabarmenak ageri direla eraikuntzen erabileraren arabera. Izan ere, bizitegi-erabilerarako proiektuen lizentziek % 31,9 egin zuten behera, eta bestelako erabileretarako proiektuen lizentziek, berriz, % 32,5. Azken alor horretan, murrizketak % 14 gaitzen du kasu guztietan. Lehen sektorerako bideratutako ekintzetan, murrizketak -% 46,5era iristen dira, zerbitzuetan -% 36,6ra eta industrian eta energian, berriz, -% 14,3ra.


4. grafikoa. Obra handiko lizentziak, urteen eta hiruhilekoen arabera, obra zer erabileretarako zen kontuan hartuta. 1998-2017

Zifra absolutuak





Portzentajezko banaketa



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistika. 2017ko 4. hiruhilekoa

(*) Ez dira kontuan hartu eraispenerako bakarrik ziren lizentziak



Bestalde, datu historikoek erakusten dutenez, lizentzia asko eman ziren garaietan edo gorantz egin zuten garaietan izan zen, hain zuzen ere, bizitegi-erabilerarako obretarako lizentzien ehuneko handiena. Zehazki, bizitegi-erabilerarako obretarako lizentzien ehunekoa % 75etik gorakoa izan zen lizentzia gehien eman zen garaian, 1998tik 2001era, eta % 78ra ere iritsi zen 2004an, gorakada handia izan zenean, 2002 eta 2003 bitartean emandako lizentzien ehunekoak behera egin ondoren. 2017an, tankera horretako lizentziak % 75,4 izan ziren, eta ehuneko horrek 2008-2016 aldian erregistratutakoak gainditu egin zituen (% 74,5 izan zen maximoa 2008an).

Bizitegi-erabilerarako ez ziren obretarako lizentzien artean, emandako lizentzia gehienak zerbitzuen sektorearekin lotutako obretarako izan ziren epe luzera: 1998an, % 54 izan ziren, eta gainerako urteetan, hortik gorakoak. Maximoa 2011n eskuratu zen, sektore horrek bizitegitarako ez diren lizentzien % 68,7 bildu baitzuen.

Zerbitzu-sektoreari lotuta 2017an erregistratutako lizentzien murrizketak zera eragin du: zerbitzuen sektorearen partaidetza bizitegitarako ez diren lizentzien % 65,6koa izatetik 2016an, 2017an % 60,9koa izatera. Aldakuntza hori, halaber, 2017an industriaren eta energiaren sektorearekin lotutako lizentzien hazkunde nabarmenarekin ere lotuta dago, izan ere, 2016an bizitegitarako ez diren lizentzien % 23,1 izatetik % 29,8 izatera igaro zen 2017an. Hain zuzen, 2017ko ehuneko hori (% 29,8) oso gertu dago 2002an erregistratutako 1998-2017 aldiko maximotik (% 30,0).



5. grafikoa. Obra handiko lizentziak, bizitegi-erabilerarako ez zirenak, obra zer erabileratarako zen kontuan hartuta (*). 1998-2017



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistika. 2017ko 4. hiruhilekoa

(*) Ez dira kontuan hartu eraispenerako bakarrik ziren lizentziak



Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantzarekin lotutako obretarako lizentziei dagokienez, sektore horretako jarduerak normalean gutxi izaten badira ere, lizentzietan izandako ehunekoak askoz handiagoak dira sektoreak duen pisu ekonomikoa baino. Horrenbestez, partaidetza erlatibo hori beti % 10etik gorakoa izan da 2016ra arte, eta proportzio handiena 2013an izan zuen: bizitegi-erabilerarako ez ziren lizentzien % 19,8. Halere, 2013 eta 2017 artean partaidetza ehuneko 10 puntu baino gehiago murriztu zuen: 2013an % 19,8 izatetik 2017an % 9,3 izatera. Hain justu, 2017ko balioa 1998tik jasotako gutxieneko ehunekoa da.

3. AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZA-KOPURUA, OBRA HANDIKO ZENBAT LIZENTZIA EMAN ZIREN KONTUAN HARTUTA

Etxebizitzak eraikitzeo aurreikuspena hobetzen du Araban eta Bizkaian aurreko hiruhilekoaren aldean, baita iazko hiruhileko beraren aldean ere

2017ko laugarren hiruhilekoan emandako bizitegi-erabilerako obra handiko 635 lizentziak guztira 1.855 etxebizitzari lotu zitzaizkien (aurreko hiruhilekoan baino 830 gehiago). Etxebizitza horietatik 1.596 oin berriko jarduketei lotzen zaizkie, eta gainerako 259ak birgaitzeko prozesuan dauden etxebizitzak dira².

Zehaztu behar da eraginpean dauden oin berriko etxebizitzaren bolumenak gorabehera handiak izan ahal dituela hiruhilekoan, hiruhileko batetik bestera onartzen diren tamaina handiko sustapenen kopuruaren arabera. Alderdi hori gogoan izanik, gorakada nabarmena detektatu da 2017ko hirugarren eta laugarren hiruhilekoen artean, EAEn aurreikusitako oin berriko etxebizitzaren kopuruan (+% 96,8). 2016ko laugarren hiruhilekoko kopurua 2017ko hiruhileko berbereko kopuruarekin konparatzen bada, ikusten da egoera motelagoan baina deigarrian berroneratu dela oin berriko etxebizitzaren aurreikuspenean: +% 18,2 hain justu.

Bestalde, 2017ko laugarren hiruhilekoan ere hobera egin du birgaitzeko aurreikusitako etxebizitzaren kopuruak, bai aurreko hiruhilekoarekiko (+% 21,0) bai 2016ko hiruhileko berdinarekiko (+% 7,0).

2017ko laugarren hiruhilekoan, jarduketa gehien aurreikusita zituen lurraldea **Bizkaia** da, guztira 1.056 etxebizitza baitzituen eraginpean, haien % 87,4 oin berrikoak (923 etxebizitza). Lurralde horretan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta nabarmen egin du gora oin berriko etxebizitza-kopuruak (+% 131,3), eta intentsitate txikiagoz 2016ko hiruhileko berarekin alderatuta (+% 30,6). Birgaitzeko jarduketei lotutako etxebizitzaren

² Birgaitutako etxebizitzaren kontaketa ez dira kontuan hartzen etxebizitza bateko baino gehiagoko etxebizitza-eraikinak, zeinetan eraikineko elementu komunei soilik eragiten dieten birgaitze obrak egiten diren. Eraginpean dauden etxebizitza birgaituen kontaketa, honako esku-hartze hauek hartzen dira kontuan soil-soilik: familia bakarreko eraikin edo etxebizitzaren birgaitze integralak eta etxebizitza bateko baino gehiagoko eraikin baten barruko bao bateko edo gehiagoko (etxebizitzak) birgaitzea (azken kasu horretan kontuan hartzen da garatutako bereizte edo bategite prozesuetatik ateratzen den etxebizitza kopurua).



kopuruari dagokionez, horien bolumenak ere gora egin du 2017ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta (+% 30,4), baita 2016ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta ere (+% 52,9).

8. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra motaren eta Lurralde Historikoaren arabera. 2017ko 4. hiruhilekoa

(Hiruhilekoko balio absolutuak eta portzentaje bertikalak. Aldakuntza absolutua eta portzentajekoa, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta.)

AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA		2017ko 4. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza		Aurreko urteko hiruhileko berberarekiko aldakuntza	
		Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	1.855	100,0	830	81,0	263	16,5
	Oin berrikoa	1.596	86,0	785	96,8	246	18,2
	Birgaitzea	259	14,0	45	21,0	17	7,0
Araba	Guztira	386	100,0	290	302,1	152	65,0
	Oin berrikoa	318	82,4	266	511,5	148	87,1
	Birgaitzea	68	17,6	24	54,5	4	6,3
Bizkaia	Guztira	1.056	100,0	555	110,8	262	33,0
	Oin berrikoa	923	87,4	524	131,3	216	30,6
	Birgaitzea	133	12,6	31	30,4	46	52,9
Gipuzkoa	Guztira	413	100,0	-15	-3,5	-151	-26,8
	Oin berrikoa	355	86,0	-5	-1,4	-118	-24,9
	Birgaitzea	58	14,0	-10	-14,7	-33	-36,3

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistika. 2017ko 4. hiruhilekoa

Gipuzkoan 413 etxebizitzatarako lizentziak eman ziren 2017ko laugarren hiruhilekoan. Oin berriko 355 etxebizitza eraikitzea aurreikusten da, eta perspektiba apur bat negatiboa ageri da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-% 1,4), eta intentsitate handiagoz egin du behera 2016ko hiruhileko bearekin alderatuta (-% 24,9). Birgaitzeko jarduketari dagokionez, lurralde horrek ere okerrera egin du 2017ko hirugarren hiruhilekoaren eta laugarrenaren artean egindako jarduketari dagokionez (-% 14,7), baita aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta ere (-% 36,3).

Araban, azkenik, 386 etxebizitzatarako jarduketak erregistratu dira. Gorakada handia izan da 2017ko hirugarren hiruhilekoaren eta laugarrenaren artean aurreikusitako etxebizitza kopuruari dagokionez (+% 302,1), eta horrek zerikusia dauka oin berriek lotutako ekintzen gorakada handiarekin (+% 511,5) azken hiruhilekoan, eta intentsitate txikiagoarekin urte arteko bilakaerari dagokionez (+% 87,1). Beste alde batetik, birgaitzeko jarduketei lotutako etxebizitzaren kopuruak gora egin du % 54,5 baldin eta 2017ko bigarren hiruhilekoarekin alderatzen badugu; etxebizitzetarako aurreikusitako



birgaitzeko emakiden kopuruak, aldiz, hobekuntza apalagoa izan du aurreko urteko hiruhileko berberarekin alderatuta (+% 6,3).

Urte arteko kopuru metatuetan hobera egin dute Arabako eta Gipuzkoako emaitzek, oin berriko etxebizitzetara dagokienez; birgaitzearen kasuan, EAEko lurraldeen artean Bizkaian soilik egin dute hobera emaitzek

Aurreikusitako etxebizitzaren kopuruan hiruhilekoan izandako gorabehera handiak kontuan hartuta, komenigarria da azterketaren ardatzean emaitzen **urteko dinamika metatua** jartzea. Eragiketak modu horretan eginda, egiaztatzen da bizitegitarako xedea duen urteko jarduera, 2017ko laugarren hiruhilekora arte metatutakoa, guztira aurreikusitako 5.264 etxebizitzari eragiten dien jarduketak direla. Horrek esan nahi du % 1,0 egin duela gora (53 etxebizitza gehiago), 2016ko laugarren hiruhilekora arte metatutako urteko jarduerari dagokionez. Gorakada hori batez ere oin berriei lotutako jarduerekin lotzen da, eta horren eraginpean dauden etxebizitzaren kopuruaren % 3,2ko gorakada erregistratu da (+137 etxebizitza). Birgaitzeko jarduketei dagokienez, ikusten da emaitzek txarrera egin dutela (-% 8,9, 2016ko laugarren hiruhilekoan aurreikusitako jarduketaren eraginpean dauden 947 etxebizitzetatik 2017ko epealdi berbereko 863 etxebizitzetara igarotzean).

9. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2017ko 4. hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak eta portzentajea. Urte arteko aldakuntza absolutua eta portzentajeakoa.)

AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA		Metatua 2017ko 1. hiruhilekotik 2017ko 4. hiruhilekora.		Metatua 2016ko 1. hiruhilekotik 2016ko 4. hiruhilekora.		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko hiruhileko berberarekin alderatuta	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	5.264	100,0	5.211	100,0	53	1,0
	Oin berrikoa	4.401	83,6	4.264	81,8	137	3,2
	Birgaitzea	863	16,4	947	18,2	-84	-8,9
Araba	Guztira	713	100,0	624	100,0	89	14,3
	Oin berrikoa	514	72,1	414	66,3	100	24,2
	Birgaitzea	199	27,9	210	33,7	-11	-5,2
Bizkaia	Guztira	2.757	100,0	2.864	100,0	-107	-3,7
	Oin berrikoa	2.330	84,5	2.446	85,4	-116	-4,7
	Birgaitzea	427	15,5	418	14,6	9	2,2
Gipuzkoa	Guztira	1.794	100,0	1.723	100,0	71	4,1
	Oin berrikoa	1.557	86,8	1.404	81,5	153	10,9
	Birgaitzea	237	13,2	319	18,5	-82	-25,7

Iurria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistika. 2017ko 4. hiruhilekoa




Dinamika orokorra, hala ere, lurralde bakoitzean ikusitako prozesuetako diferentzia handien baldintzapean dago. Ildo horretan, birgaitzearen arloaren bilakaera ona Bizkaiaren ezaugarria da soilik. Lurralde horretan urteko metatuaren +% 2,2ko gorakada izan da 2016ko laugarren hiruhilekoaren eta 2017koaren artean. Araban eta Gipuzkoan, aldiz, ikusten da 2017ko laugarren hiruhilekoan urte arteko beherakada izan dela birgaitzeko jarduketetan (-% 5,2 eta -% 25,7 Araban eta Gipuzkoan, hurrenez hurren).

Lurraldeen arteko desberdintasunak era berean nabarmenak dira etxebizitza berrien arloan aurreikusitako jarduketei dagokienez. Kasu honetan, Araban hobekuntza nabaria ageri da jardueran (+% 24,2), eta Gipuzkoak, hazkunde txikiagoarekin, % 10,9ko hazkundera erregistratu du. Bizkaietan, aldiz, +% 4,7ko beherakada izan da 2017ko laugarren hiruhilekorako aurreikusitako etxebizitzaren urteko bolumen metatuan, 2016ko hiruhileko berberarekin alderatuta.

URTEKO BILAKAERA

Epe luzeagorako egindako analisi batean, azken aldietako bilakaerak erakusten du apur bat hobetu dela 2013ra bitartean erregistratutakoarekin alderatuta, baina oraindik ere urrun 2002-2011 aldian aurreikusitako etxebizitza kopuruaren aldean

6. grafikoa. Aurreikusitako etxebizitza berrien eta birgaituen kopuruaren bilakaera EAE osoan, urtez urte, emandako obra handiko lizentzien arabera. EAE 2002-2017



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistika. 2017ko 4. hiruhilekoa



Epe luzeagorako egindako analisi batean, 2017aren amaieran aurreikusitako 5.264 etxebizitzek, 2016arekin alderatuta % 1,0eko hazkundearekin, baieztatu egiten dute 2014 eta 2016 artean erregistratutako berreskuratzea. Alabaina, 2007 eta 2013 arteko beherakadaren intentsitateak azaltzen du 2017an bizitegi-helburuetarako lizentziak emateari lotutako eraikuntza-jardueran inplikaturako etxebizitzaren kopurua oraindik ere % 69,5 txikiagoa izatea, 2007koa baino (5.264 etxebizitza 2017an eta 17.250 etxebizitza 2007an).

Eraikuntzaren krisiaren ondorioak askoz ere nabarmenagoak izan dira etxebizitza berrietan, gainerakoetan baino. Dagokigun kasuan, jarduerak aurreikusitako etxebizitzaren kopuruak gora du nabarmen azken urteetan (+% 47,6 hain zuzen 2015 eta 2016 artean, eta +% 3,2, berriz, 2016 eta 2017 artean); hala ere, kopuru hori oso urrun dago 2007an erregistratutako 16.322 haietatik. Aurtengo jarduketei dagokienez, aurreikusitako jarduketa duten etxebizitzaren bolumena % 73,0 beherago dago 2017an.

10. taula. Aurreikusitako etxebizitza kopurua, obra handiko lizentzia-motaren arabera, urteka. 2002-2017

(Balio absolutuak eta urte arteko aldakuntza, %)

Urtea	Guztira		Oin berrikoa		Birgaitzea	
	Kopurua	Urte arteko aldakuntza	Kopurua	Urte arteko aldakuntza	Kopurua	Urte arteko aldakuntza
2002	11.748	-	11.171	-	577	-
2003	14.643	24,6	13.864	24,1	779	35,0
2004	15.137	3,4	13.995	0,9	1.142	46,6
2005	13.903	-8,2	13.146	-6,1	757	-33,7
2006	16.940	21,8	15.966	21,5	974	28,7
2007	17.250	1,8	16.322	2,2	928	-4,7
2008	10.820	-37,3	10.013	-38,7	807	-13,0
2009	7.991	-26,1	7.456	-25,5	535	-33,7
2010	7.515	-6,0	6.916	-7,2	599	12,0
2011	8.449	12,4	7.725	11,7	724	20,9
2012	4.377	-48,2	3.783	-51,0	594	-18,0
2013	3.235	-26,1	2.613	-30,9	622	4,7
2014	3.573	10,4	2.862	9,5	711	14,3
2015	3.722	4,2	2.889	0,9	833	17,2
2016	5.211	40,0	4.264	47,6	947	13,7
2017	5.264	1,0	4.401	3,2	863	-8,9
Aldea 2007-2017	-11.986	-69,5	-11.921	-73,0	-65	-7,0

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistika. 2017ko 4. hiruhilekoa


Egoera nahiko desberdina da birgaitzeko obra handiko lizentziei dagokienez: 2017an hautsi egin zen 2012tik 2016ra arte erregistratutako bilakaera positiboa. Hartara, 2015 eta 2016 bitartean, jarduerak aurreikusita zeuzkaten etxebizitzaren kopuruak % 13,7ko hazkundera ageri zuen; 2016 eta 2017 artean, berriz, % 8,9ko murrizketa.



Araban eta Gipuzkoan etxebizitza berriekin lotutako lizentzien aurreikuspenak berreskuratu dituzte 2017an

Azkeneko urteetan oin berriko etxebizitzak berroneratu egin diren arren, nabarmena da lurralde historiko guztietan ageri den aldea 2006/2007 aldian izandako eraikuntza-datuei erreparatuta. Gipuzkoak berreskuratu du oin berriko etxebizitzekin lotutako jarduera 2013 eta 2017 bitartean (+% 10,9 2016 eta 2017 artean). Hala eta guztiz ere, beherakada nabarmena dauka metatuta oin berriko etxebizitza-aurreikuspenean, 2006 eta 2017 artean. Hala, 1.557 etxebizitza zeuden aurreikusita 2017an; nabarmen gainditzen dute datu horiek 2012-2016 aldiko emaitza (maximoa 1.404 etxebizitza izan zen 2016an). Oraindik ere % 68,8ko beherakada ageri dute, 2006ko 4.994 etxebizitzekin alderatuta.

7. grafikoa. Aurreikusitako etxebizitza berrien kopuruaren bilakaera lurralde historiko bakoitzean, urtez urte, emandako obra handiko lizentzien arabera. EAE 2002-2017



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistika. 2017ko 4. hiruhilekoa

Arabak ere egin du onera azken urtean (+% 24,2), baina bertan erregistratu da beherakadarik handiena oin berriko etxebizitzaren eraikuntzan: % 91,6ko beherakada, hain zuzen, 2007 eta 2017 artean (6.090 etxebizitza aurreikusi ziren 2007an, eta 514 bakarrik 2017an).

Bizkaia izan da beherakada izan zuen lurralde bakarra azken urtean (-% 4,7 hain zuzen 2016 eta 2017 artean), nahiz eta kontuan izan behar den 2016ko kopurua 2015 eta 2016



artean izandako goraka handiarekin lotuta zegoela (+% 91,5). Epe luzeagorako bilakaera bat eginez gero, Bizkaiak -% 64,0ko beherakada du 2007tik aurreikusitako oin berriko etxebizitzetan.

11. taula. Aurreikusitako etxebizitza-kopurua, obra handiko lizentzia-motaren arabera, urteka. 2002-2017

(Balio absolutuak eta urte arteko aldakuntza, %)

Urtea	Araba				Bizkaia				Gipuzkoa			
	Oin berrikoa		Birgaitzea		Oin berrikoa		Birgaitzea		Oin berrikoa		Birgaitzea	
	Kopurua	Urte arteko aldakuntza	Kopurua	Urte arteko aldakuntza	Kopurua	Urte arteko aldakuntza	Kopurua	Urte arteko aldakuntza	Kopurua	Urte arteko aldakuntza	Kopurua	Urte arteko aldakuntza
2002	2.889		125		5.004		261		3.278		191	
2003	3.996	38,3	195	56,0	6.086	21,6	266	1,9	3.782	15,4	318	66,5
2004	4.164	4,2	231	18,5	6.432	5,7	412	54,9	3.399	-10,1	499	56,9
2005	2.632	-36,8	231	0,0	6.026	-6,3	275	-33,3	4.488	32,0	251	-49,7
2006	4.745	80,3	268	16,0	6.227	3,3	314	14,2	4.994	11,3	392	56,2
2007	6.090	28,3	277	3,4	6.469	3,9	184	-41,4	3.763	-24,6	467	19,1
2008	3.696	-39,3	147	-46,9	3.560	-45,0	390	112,0	2.757	-26,7	270	-42,2
2009	3.625	-1,9	207	40,8	1.564	-56,1	179	-54,1	2.267	-17,8	149	-44,8
2010	2.363	-34,8	143	-30,9	1.883	20,4	217	21,2	2.670	17,8	239	60,4
2011	2.445	3,5	173	21,0	3.274	73,9	349	60,8	2.006	-24,9	202	-15,5
2012	1.107	-54,7	125	-27,7	1.360	-58,5	257	-26,4	1.316	-34,4	212	5,0
2013	299	-73,0	195	56,0	1.703	25,2	236	-8,2	611	-53,6	191	-9,9
2014	292	-2,3	157	-19,5	1.590	-6,6	356	50,8	980	60,4	198	3,7
2015	338	15,8	181	15,3	1.277	-19,7	424	19,1	1.274	30,0	228	15,2
2016	414	22,5	210	16,0	2.446	91,5	418	-1,4	1.404	10,2	319	39,9
2017	514	24,2	199	-5,2	2.330	-4,7	427	2,2	1.557	10,9	237	-25,7
Aldea 2006-2017	-4.231	-89,2	-69	-25,7	-3.897	-62,6	113	36,0	-3.437	-68,8	-155	-39,5
Aldea 2007-2017	-5.576	-91,6	-78	-28,2	-4.139	-64,0	243	132,1	-2.206	-58,6	-230	-49,3

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistika. 2017ko 4. hiruhilekoa



ALDERDI METODOLOGIKOAK

Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistika zentsu-eragiketa bat da, eta bertako informazioa EAEko 251 udalek igortzen dute hilero. Informazio hori udalerrian emandako obra handiko lizentziei buruzkoa da, bai eta etxebizitza babestuak sustatze aldera udalak eskuratutako lurzoruari buruzkoa ere. Bestalde, udalak alokatzeko daukan etxebizitza-parkeari buruzko informazioa ere jasotzen da urtero.

Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistikaren helburu orokorra honako hau da: jakitea Euskal Autonomia Erkidegoan zenbat, zer eta non eraikitzen, birgaitzen eta eraisten den. Udalek emandako obra handiko lizentziak oinarri hartuta, obraren ezaugarri nagusiak (oin berria, birgaikuntza edo eraispena), eraikinaren erabilera eta eragindako etxebizitzak zein diren jakin nahi da.

Definizioak.

Obra handiko lizentzia. Obra handiko lizentzia obra handiak egiteko baimen bat da, tokian tokiko administrazio eskudunak ematen duena, oin berriko edozein eraikuntza mota egiteko edo eraikinak eraitsi edo birgaitzeko, horiek bizitegi-erabilerakoak izan zein ez. Baimenaren helburua da egiaztatzea lizentzia-eskaera bat datorrela hirigintza-araudiak xedatzen duenarekin.

Ondorio horietarako, honako hauek jotzen dira obra handitzat.

a. Oin berriko obra. Eraikin berri bat eraikitzeko obra handia da, aldeztatik beste eraikin bat osorik eraitsita edo eraitsi gabe. Eraikinak bizitegi-erabilera izan dezake, edo bestelako erabilera bat.

b. Birgaitze-obra. Aurrekoa ez bezala, ez da eraikin berririk eraikitzeko obra handia, baizik eta jada eraikita daudenetan egitekoa, aldeztatik eraispentzako partzialak eginda edo egin gabe.

Obraren eraginpean dagoen eraikinak bizitegi-erabilera izan dezake, edo bestelako erabilera bat.

Birgaitze-obra bat obra handitzat jotzeko, arkitekto edo pareko batek ikus-onetsitako proiektu tekniko bat egin beharko da. Proiektu tekniko hori nahitaezko baldintza gisa jaso beharko da lizentzia emateko aurkeztu behar den dokumentazioan, eta baldintza hori betetzen ez dutenak obra txikiko lizentziatzat hartuko dira.

Obra horiek bi motatakoak izan daitezke.

- Handitzeko obra. Lehendik eraikitako azalera handitzen denean, egiturazko elementu berriak erantsita. Handitze hori bertikalean egin daiteke, lurzoruaren



ganean hartutako azalera areagotu gabe (adibidez, beste solairu bat erantsita), edo horizontalean; azken kasu horretan, lurzoruan azalera gehiago hartzen da.

- Erreforma- eta/edo zaharberritze-obra. Eraikinaren azalera eraikia aldatu gabe, eraikinaren egiturazko elementuren bat aldatzen denean edo lehendik ez zegoen hornidura berriren bat ezartzen denean.

Atal honetan jasotako birgaitze-obra handiak hainbat arlotakoak izan daitezke. Ohikoenak hauek dira.

- Eraikinak handitzea horiek jasotzeko obra eginez edo azalera gehiago hartuz
- Igogailuak edo antzekoak jartzea.
- Fatxadaren eta/edo teilatuaren birgaitze osoa.
- Merkataritzako lokal bati bizitegi-erabilera ematea.
- Eraikinean egiturazko aldaketak egitea behar duten etxebizitzan edo lokalen barne-egokitzapena.
- Etxebizitza bat edo batzuk banantzea edo batzea.
- Beren konplexutasunagatik edo ezaugarri teknikoengatik, edo duten garrantzi ekonomikoagatik, eskumeneko sailak obra handitzat jotzen dituen erreforma-obra.

c. Eraispin-obra. Eraikin bat osoki edo partzialki eraistea da.



ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA 2017ko 4. hiruhilekoa

EMAITZA NAGUSIAK

AURKIBIDEA

1. OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	2
2. EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIAK ZER ERABILERATARAKO ZIREN	11
3. AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZA-KOPURUA, OBRA HANDIKO ZENBAT LIZENTZIA EMAN ZIREN KONTUAN HARTUTA	18
ALDERDI METODOLOGIKOAK	25

Taulen aurkibidea

1. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2017ko 4. hiruhilekoa	3
2. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2017ko 4. hiruhilekoan metatutako urteko datuak.....	5
3. taula. Obra handiko lizentziak urtez urte, obra-motaren arabera. 1998-2017	7
4. taula. Oin berriko obretarako eta birgaitzeko obra handiko lizentziak, urteka eta lurralde historikoka, obra motaren arabera. 1998-2016	10
5. taula. Obra handiko lizentziak, obra zer erabileratarako zen kontuan hartuta. 2017ko 4. hiruhilekoa	12
6. taula. Obra handiko lizentziak, obra zer erabileratarako zen kontuan hartuta. 2017ko 4. hiruhilekoan metatutako urteko datuak	13
7. taula. Obra handiko lizentziak, urteen eta hiruhilekoen arabera, obra zer erabileratarako zen kontuan hartuta (*), 1998-2017	14
8. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra motaren eta Lurralde Historikoaren arabera. 2017ko 4. hiruhilekoa	19
9. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2017ko 4. hiruhilekoan metatutako urteko datuak	20
10. taula. Aurreikusitako etxebizitza kopurua, obra handiko lizentzia-motaren arabera, urteka. 2002-2017	22
11. taula. Aurreikusitako etxebizitza-kopurua, obra handiko lizentzia-motaren arabera, urteka. 2002-2017	24

Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera. EAE. 1998-2017	6
2. grafikoa. Obra handiko lizentziak urtez urte, obra-motaren arabera. 1998-2017.....	8
3. grafikoa. Obra handiko lizentziak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 1998-2017.....	11
4. grafikoa. Obra handiko lizentziak, urteen eta hiruhilekoen arabera, obra zer erabileratarako zen kontuan hartuta. 1998-2017	15



5. grafikoa. Obra handiko lizentziak, bizitegi-erabilerarako ez zirenak, obra zer erabileratarako zen kontuan hartuta (*). 1998-2017..... 17
6. grafikoa. Aurreikusitako etxebizitza berrien eta birgaituen kopuruaren bilakaera EAE osoan, urtez urte, emandako obra handiko lizentzien arabera. EAE 2002-2017..... 21
7. grafikoa. Aurreikusitako etxebizitza berrien kopuruaren bilakaera lurralde historiko bakoitzean, urtez urte, emandako obra handiko lizentzien arabera. EAE 2002-2017.... 23

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistika Organo Berezia

Donostia-San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Harremanetarako pertsona: Aitor Puerta

Telefonoa: +34-945-01 69 61; Faxa: +34-945-01 98 56

WEB: <http://www.euskadi.eus/etxebizitza-estatistikak/>

Helbide elektronikoa: estadisticas-vivienda@euskadi.eus